Hitz haragitu guzia da egoki
(hori da erlijio guzietako jainko: hitz haragitua)

Patziku Perurena

Hizketak egiten gaitu gizaki. Euskarak euskaldun. Abere huts ginateke bestenaz. Hitzetara ezean, ez baitu deusek arimarik guretzat. Euskara ez den guzia *erdara* baitu gure bihotzak; erdara bai: *erdiera, erdipurkeria*, egungo eran esanez, *mediokritatea*, alegia. Edozein hiztunek behar-beharrezko duen harrotasun hori gabe, sentimentu zinezko hori gabe, naturaltasun *elemental* hori gabe, alfer-alferrik lituzke euskaldunak (edo beste edozein hiztunek) bere bihotzeko hizkuntzaren *egokitasun polit* guziak.

Eta harakinak bere eguneroko lanean *labanak* bezalaxe zorrozten eta kamusten du hiztunak ere bere guzizko erreminta: *hitza, hizketa...* Asko dira harakin onak, bixiak, argiak... beren lanean ongi ari direlako konfiantza eta ilusio osoa erakutsiz, eta, labana eta beste erreminta guziak txukun eta antzoso erabiliz, haragizalea liluratzen dutenak. Baina badira beren erreminta trakets samar erabiltzeagatik, haragizale franko galtzen dutenak ere. Eta beren lohikeria eta utzikeriagatik bezero guziak galdu, harakintza laga, eta beste ofizio batera jo behar izaten dutenak ere ez gutxi.

Harakinen eta haragizaleen arteko lehengaia *haragia* da, ordea, haragi ona edo txarra, eta ez *labana* zorrotza edo kamutsa. Eta gu, euskaldunok, badirudi haragiaz ahazteraino kezkatzen gaituela labana zorrotz/kamuts erabiltze kontuak. Are gehiago esanen nuke: haragirik ezagatik, harri gainean taigabe labana zorroztu eta kamustu, kamustu eta zorroztu, ari den harakina dirudi jadanik euskaldun bakoitzak. Atarramentu ona, haragirik ezaz gainera, labana eta zorroztailua biak higatu eta hondatu, eta atzenerako deus gabe gelditzeko.

Halabaina *hitzak* badu, *labanak* ez duen dohain ikaragarria. Bai, *haragitu* egiten da hitza. Eta horixe da gizaki baten arima: *hitz haragitua*. Eta horixe herri baten arima: *hizkuntza haragitua*. Eta zenbat euskara *haragitzen* ote da Euskal Herrian egunero? Egoki edo trakets darabilgun alde batera utzi, eta zenbat euskara *haragitzen* ote da, bai?... Lotsa ere ematen dit ergelkeria hau esan beharrak, baina, *haragitzen den euskara* besterik ez zait interesatzen niri. Hizketa *egokituak* baino askoz barrenago, hizketa *haragituak* hunkitzen bainau, gizontzen bainau, lehen-lehenik.

Ez, ez da hizketa egokirik; ez hizketa traketsik. Hizketa biziak edo hilak baizik. Hizketa hunkigarriak edo hizketa barrenutsak baizik. Arimako lorautsa harrotzen eta kutsatzen duten hizketak, edo ilauna bezala inon deus ernaldu gabe galtzeko sortzen diren hizketak. Haratx, *"Arianaren hitzek ukitu egiten zioten larrua Goiori"* leitu eta, amorante disekatu bati, nere inozentzia guziarekin esaten niona:

(Nire gaitzetako bat ekarri zidan gogora esaldi horrek. Ni oso gutxi ibiltzen naun jende artean, baina maitemindurik egon gabe ere, kunplimentu hutsezko diosala pasakorrak baino luzexeagoko solasaldiren batean hasten banaiz norbaitekin, gero eta larriago hitz eginez mintzagaiaren muinera heldu orduko *ernaldu* bezala egiten naun, eta bat-batean halako *hitzikara* gisako batek pasatzen din nere larrua,

burutik oinetara, nondik eta zergatik sortu zaidan seguru ez dakidan tximista batek pasako banindu bezala barrenik barren. Askotan gertatzen zaidan hori, eta aurrean daukadan hiztunari ere nabaritzen zionat begietan, nola ari den nere *hitzikara* harengan *haragitzen*, eta batzuetan baita ezpainen mugimendu gordean ere, nere *hitzikara* jaten ariko balitz bezala, eta bat-bateko *hitzikara* horren sortzaile eta kulpante neroni izan naizela ohartzean, lotsatu bezala egiten naun, eta isildu, edo solasaldia nolahalaka moztu, (harakin traketsak *haragia* bezala), eta nere bidean segitzen dinat aurrera, inorekin hizketan hasi izanaz damuturik bezala, inoren sentimentuak inori adierazteko *hitzik egokienak* ere hagitz erreminta traketsak direla etsita bezala.

Hurrengoan kontrolatuko dudala *hitzikara* hori, esaten zionat neure buruari, gero eta larriagotuz neure larruan birbirka pasa arteko onik izaten ez duen *hitzikara* hori, baina, alfer-alferrik! Buruz bazekinat zergatik gertatzen zaidan, baina esaion bihotzari, odolari, edo arimari, edo dena delakoari, *hitzikara* inguru larritzaile horretan sosegu bila hasteko!... Neure hitz inozenteak berak larrua ukitzen didala ohartzen naun bai, eta munduko kreaturarik arrotzena sentitzen naun gizarte barrenuts zakurtu honetan.)

Esaten da, gaurregun sekula baino zabarrago hitz egiten dela, eta hizketa bizia, ugaria eta dotorea erakutsi nahi zaio jendeari, batik bat gazteari; hitzaren azal hutsarekin bete nahi balitzaio bezala arimako hutsa, baina, alfer-alferrik: nork bere gogobihotzen ispilu besterik ez baitu izanen beti hizketa, Axularrek ongi gogoratu bezala:

"Mihiak deklaratzen du zer dadukan bat bederak bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barrenean. Mihian da ezagun nor den bat bedera"...

Victor Hugok gauza beratsua esaten zuen: *mamiaren giharra salatzen duela, nonbaitean, axaleko azken izpiak ere.* Eta izatez, gure bizitzaren axal-axaleko *azken izpia* besterik ez da *hitza*, *hizketa*, baina,

erne begiratuz gero, gure nortasun pizarraren giharreraino eramanen gaitu axaleko bezain iraizeko dirudien *azken izpi galkor* horrek.

Eta nolako gogoz eta bihotzez bizi du jendeak bere izate eta bere ingurumari guzia? Ez al du hagitz antsikabe eta lohi bizi? Nola atera, beraz, mihiaren azalera, bihotzeko zolan ez daraman hazirik, bizirik? Axiskok eta Kikek erakutsiko ote digute, agian, bizitan pasa gabeko hitz hutsekin jolasten?... Baliteke, baina, zerbait esan behar eta, *Bai Euskarari!* esate *huts* horrekin *Euskara Gaituko* dela uste izateak pena ematen dio nere bihotzari.

Ez dakit nola esplikatu, baina, sentitu eta bizi, egunero egiten dut gezur hau, aitzakia ustel hau, beti hizkuntzaren bizkar bota nahi den *hipokresia* politiko (etiko? gizatar?) nazkante hau. Ez dakit nola esplikatu, baina, demagun, ziklisten karrerako eskoba bezalatsu dela *hitza*, eta guk badirudi, ziklisten karrera bukatu aldiro, hain juxtu, eskobarekin (*hitzarekin*) zuzendu nahi ditugula, jadanik metara iritsia den pelotoiaren okerrak.

Berrizkoan ere lagun izoztu hark sikologoari esandakoaz oroitzen naiz... *"Izen bat eman nahi diozu, izen hutsarekin gaitza sendatuko duzulakoan".* Ez, ez da aski *hitza* munduko sorkarien gain-gaineko jantzi hutsa besterik ez dela esatearekin ere. Hobeki esplikatu behar da. Batez ere hemen, euskaldunon gaitz guziak *euskara egokiak* salbatuak leuzkakeela uste dugunon artean:

(Hitza ez dun gauza bakoitzaren gainean jar daitekeen etiketa, hitz egitea zerbait adierazi eta ulertzeko asmo konpartitua dun, eta ez pentsa asmo berera ailegatzea errexa denik... Lexigorgrafo (sic) horiek hitzekin lan egiten dinate, entomologoek intsektu hilekin bezala, orratz bat iltzatzen zionate hitzari bizkarretik eta kieto, beren kolekzioan, uste dinate hitzak zeozer badirela bizitzatik aparte.)

Gero, badago sare ofizial osotara gailendu bat, batez ere, *euskara haragitzeak* batere kezkatzen ez duena, eta politiko abertzaleak berak

euskara kontuetan beste deus baino aisago eta pozikago diruz laguntzen duena, eta badirudi euskaltzalerik gorrienak ere konforme daudela sare ofizial horrekin, *hitzak* gauzen gainean ipintzeko *etiketa exotiko* moduan tratatze horrekin. Zergatik, ordea, onarpen isil hori, euskararen kontrako gobernuek ere pozik ematen duten dirulaguntza horri? Pentsatu eta zentzatu beharko luke norbaitek, baina, nik esan faltan ez dadila izan:

"Nik neronek Leitzako Errege Erreginak *liburua argitaratzekoan, dirulaguntza eske jo nuen Udaletxera. Alkatea euskaltzale amorratua zen. Euskara Zerbitzuko burua zer esanik ez. Biak ezker abertzaleko militante sutsuak. Baina, ez zitzaien iruditu nere lanak sosik merezi zuenik.*

Geroxeago, galde/erantzun ergelekin jolasteko, -entomologoek intsektu hilekin bezala, hitz disekatuekin jolasteko alegia-, Leitzaketa *izeneko jokoa atera zuten,* Triala *edo delako horietakoa, hiru miloi inguru xahutuz, eta gainera galderarik gehienak sosik merezi izan ez zuen liburu hartatik atereaz.*

Oraintxe ateratzekotan da Leitzako Hiztegia*, Mikel Olano filologoak zorioneko liburu hartatik atera eta, entomologoek intsektuak bezala disekatutako hitzekin, eta Euskara Zerbitzuko buruak, nere garaiko hark berberak, agindua omen dio dagoeneko argitaratzeko eta behar duenerako diru guzia. Eta seguru nago, UPNko Pegenaute jaunak berak emanen diola, Euskara Zerbitzuko buru den David jaunak eskatu ahala guzia".*

Eta nago hitz disekatzaileen *birus* hau ez dela Leitzako hutsa. Euskal Herri guziak dauzkala kutsaturik. Erreka xixtor bateko urari bezala, oharkabean bizia darion euskara ez beste guzia baita gaur *euskara kontu.* Bere arnasa natural bizitia ukatu, bizia kendu eta, disekatu, apaindu, pollitu, lightu, bereixtu... (zenbat aldiz erabiltzen ote dugu *berezi* adjektiboa euskal gauzei buruz, gure *inoxokeria* salatzen

duela ohartu ere egin gabe), hitz bitan esateko, *umekiro nabarmendu*, hori da euskararekin lotutako guziari eskatzen dioguna, *umekiro nabarmendu*, libertituko bagaitu, engainatuko bagaitu, liluratuko bagaitu, *umekiro nabarmendu*, besteak ez bezalako dela erakusteko beti *berexi punttu mainontzi ergel* hori erantsi. Hori du euskarak falta duen *egokitasunik* larriena: naturaltasun elementala, hizkuntza guzien iturri bizi deneko eguneroko isuri trakets natural-natural hori, *pedantekeria exotiko* guzietatik libratu behar larri hori. Eta hori da nik salatu nahi nukeena. Eta ez dakit asmatuko dudan.

Erregu horixe egiten diet, edozein bailaratako Euskara Zerbitzutik hasi eta euskararen zaindari eta gobernuburu diren guziei. Ez atzentzeko bizitzak *haragituko* (egokituko?) digula *hitza*, baita hitzik traketsena ere, eta ez *hitz disekatuak* bizitza onduko, munduan den *hitz disekaturik egokiena* izanda ere. Gure zaharrek etsitzean esaten duten bezala, *"bizitza lehenagokoa ba"*, bota behar genioke muturrera euskara *negarkontu exotiko* huts bihurtu arteko onik ez duen *pedante mainontzi* orori.

Migel Unamunokoak esandako hura datorkit gogora:

"Ez ez, fisiologiak ez du lixeritzen irakasten; ez lojikak pentsatzen, ez estetikak edertasuna sentitzen; ez eta etikak ere, ona izaten, eta hipokrita izaten irakasten ez badu, gaitzerdi! Izan ere, pedantekeria, nonahiko eta nolanahiko dela ere, ez baita hiprokesia besterik".

Lehen *Batua* zen. Harenak emantxe omen du. Orain *euskalkiak*, *azpieuskalkiak*, *herri hizkerak, hiri euskarak, auzo euskarak, etxe hizkerak, aisi euskarak, lan euskarak, tele euskarak, goi euskarak, behe euskarak...* Jainkoak bestek ez daki non buka daitekeen kaburik gabeko buztan hau. Inon sortzen ote da hemen hainbeste ergelkeria hizkuntzaren gainean? Izan ere, honek baitakar diru erraza, euskara *exotikoki disekatze* libertigarri honek, aisialdirako entretenimentu pollit *berexi* honek.

Aski da. Esan dezagun motz eta lehor: Euskara bakarra da. Eta *batua, euskalkiak, herri hizkerak*... gure gogoaren aspaldiko utzikeria antzu hau betikotzeko aitzakia ustela besterik ez dira. Beste hizkuntza guzietan bezalaxe, gramatika elementala ikastea aski baita euskararen berezitasun guziak azaltzeko, euskarazko hitz guzien musikari letraren forma emateko. Honenbeste euskara sailkatze, graduatze, xuxentze eta egokitze txorok, funtsean ez baitu besterik erakusten: zinezko gogorik eza, euskaldun izateko benazko borondaterik eza... Prolema ez da *hizkuntzaren erabilpen egokia*, prolema *gogoaren erabil - pen egokia* da. Eta gogoa noraezean darabilen (euskal) herriak, alferrik ditu hizkuntz eredu guziak, zein eta *egokiak* diren.

Beste milaren artean, bat behar eta, Koldo Zuazo jaunaren liburu bat hartuko dut aitzakitako, *euskara egokiaren* inguruan ugaltzen (Koldok berak bai baitu honetaz beste liburu bat atera berria) ari diren *negarlore exotikoon* zainak bilatzeko:

EUSKARAREN SENDABELARRAK

Begira, begira ongi, *titulu* horri. Badirudi euskara *manikirik* delikatuena bihurtu zaigula, sendabelarren propaganda egiteko. Honela dio Zuazok berak liburuaren atarikoan:

"Euskarak dituen zenbait gaitz euskalkiak baliatuz sendotu edo, behintzat, arindu daitezkeela begitantzen zait. Hortik dator saioaren izenburua: Euskararen sendabelarrak. *Izan ere sendagarri naturalak dira belarrak, eta ba ote da euskalkiak baino sendagarri naturalagorik". (21)*

Nork sortua ote da *euskara* eta *euskalkien* arteko dikotomia ziztrin hori? Orixek esaten zuen hango eta hemengo euskaldunek elkarri hitz eginez, elkarri idatziz, elkar irakurriz, elkar entzunez, elkar adituz aberastu eta jantziko ginela euskaraz, eta ez beste inola. Ez ote du gaur ere balio berbera Orixek behiala esandakoak? Nik ez nuke ino-

lako zalantzarik. Neronek bizi eta ikasi izandakoa ez baitut horixe besterik.

Oroitzen Lizardiren lirismo eder hartaz?:

"Nahi haunat ere noranahikoa
jakite hegoek igoa,
soina zahar, berri gogoa;
azal horizta, muin betirakoa".

Badirudi gure *marimiss* pinpoxa honen *"azal horizta"* hutsak liluraturik gabiltzala joan den aspaldian, *soinaz, gogoaz, muinaz* atzendurik, edo hobeki esan, *azal horizta* horrek barren-barrengo beste *sustrai lohituok* gihartuko balizkigu bezala. Baina ez: *"por mucho que se viste de seda, mona se queda"*. Hori da gure *marimiss* honen gaitza ere, eta ez jantziaren polit-itsusia.

Atarikoaren akaberan, honela mintzo zaio Koldo bere *marimiss* bihotzekoari:

"Baina, esanak esan, euskarak badu gauza bat ona: ibili luzea egin duela. Eta asko ibili ohi denak asko ikusi ohi du, eta asko ikusi ohi duenak asko ikasi, eta horrek beti ematen du konfiantza. Euskaldunok ere badugu geure buruan konfiantza".

Gezurra. Bere buruan konfiantza baduen euskalduna ez beste guzia baitabila, hain zuzen, euskararen *ajeak* eta *sendabelarrak* taigabe asmatzen, eta inolako ajerik gabeko euskaldunak ere, inondik ahalbaitean *ajeatutzat* jotzen. Nola adierazi baneki nik, neure larruan hamaika aldiz nozitua dudan hau! Hara, me batek ere esanen ez lukeena iruditzen zait honako hau!:

"Ahozko euskara lantze aldera egitasmo politak egin dira: bertsolaritza da denetan arrakastatsuena, izan ere sena garatzeko eta hizkuntzarekin jolasteko laguntza bikaina eman ohi du. Beste jardun batzuk ere

badira, jakina, ipuin kontalaritza, txiste kontalaritza, maitasun gutu - nen lehiaketak...". (145)

Senide maiteok, burutik ongi al gaude? Ez dezatela holakorik aditu behintzat gure auzoetsaiek, bestela, ez baitigute barre gutxi eginen, gure katedratikoen koefiziente intelektuala sinalatuz. Zer egin behar dugu orain, euskara aberasteko euskaldun bakoitza bertsotan ipini, edo ipuin, txiste edo maitasun kontari?... Bo, bo!

Gauza interesgarri asko esaten da Zuazoren liburuan, hain juxtu ere, euskara *exotikotzeko* zer egin ez dakiela dabilen jendaje horrentzat; baina, inon ikusten bada eta, *Egitasmoaren Zirriborroa* izeneko atalean ikusten da ederki, zenbat konplikatzen ari garen gramatika *ergel* kaburik gabeokin:

"Eta ortografia bat eta bera da Baturako zein euskalkietarako eraba - ki dena; hemen ez da aukeratarako lekurik". (164)

Nik uste esaldi honetxekin aski litzatekeela, eta beste guziak alferalferrikakoak direla. Eta egia labur esatea nahi baduzu, orri honetatik epilogora arte esaten direnak eta ipintzen diren adibideak umekeria hutsak iruditu zaizkit:

"Uste dut egitasmo berrian oso egoki etorriko litzaugukeela "nazioko batua" alde batetik eta "eskualdeko batua" eta "herrialdeko batua" beste - tik, bereiztea" (167-8).

Gaitz honek erremediorik gabeko *birusa* dirudi, euskararen bihotzeraino sartua dagoen *pozoina*, eta ez inondik ere sendabelarra.

"Gaur egungo gizartean, gainera, oso ohikoa da lana, ikasketak, edo bizimoduko beste hainbat gorabehera direla eta, nork bere herria utzi eta beste batera jotzea, eta gizarte egitura honetan herriko hizkera bere gor - dinean erabiltzea baino egokiago gerta daiteke honen eta batuaren tar - teko bat moldatzea" (169).

Zertara dator aholku hau, maite nereak? Esanen al didazue zertara datorren, faborez eta laborez? Lotsagarri eta guzi iruditzen baitzait niri, guziok egunero bizi duguna, maisu batek sekulako formula moduan, balizko arau *egokitzat* sinalatu behar izate hutsa.

"Euskalkiak erabili beharreko esparruak zehazterakoan, berriz, ondorengo seiok bereiziko nituzke: aisialdia, irakaskuntza, lan arloa. herri hedabideak, administrazioa, literatura".

Orain arte euskaldun *osoak* izateko lau erdara (espainola, frantsesa, ingelesa eta alemana) ikasi behar ditugulaka ari zaizkigu; hori aski ez, orain beste lau bat euskara klase ikasi beharko ditugu: "nazioko batua", "eskualdeko batua", "herrialdeko batua", "lagunarteko sakabanatua" eta "etxeko ezinbatua". Eta nik far eginen dut, baina, ergelkeriok, serio demonio ari dira dirua ematen barra-barra euskararen merkatu antzuan. Gaizki esan dut *antzuan*, barka: euskararen merkatu *oinazezko* eta *odoltsuan* esan nahi nuen. Ulertzen?...

Nere Periko bihotzekoak esaten zuen hartaz oroitzen naiz beti: *lagunak makilatzen ez ezik, etsaiak maitatzen ere jakin behar lukeela erne ibili nahi duenak*. Horregatik eskatzen dizut, irakurle bihotzeko horri, egiteko galde espainol bati, ea zenbat *espainol klase* ikasi behar dituen *espainol oso* izateko, eta jasoko duzun kontestarekin eman egurra lasai nere argudio motz eta lehor hauei.

Ez gainera, sinalatu bakarrik, gero banan-banan zuritu egiten ditu, alor bakoitzean erabili behartako *euskara egokiak*, Koldo bihotz nerekoak:

Aisialdia: *esparru honetan zeharo erabil daiteke euskalkia eta baita lagunarteko hizkera ere. Ekintza hauetaz -kirol, jolas, kultura- ardura -tzen diren begiraleek hizkuntzaren aldetiko prestakuntza eta gaitasun berezia izan beharko lukete.* (171)

Ni nauzue gizona, mundualdi arrotz hau kasik *aisialdi* huts bihurtu zale; horretan egiten ditut behintzat nere eguneroko ahalegin piza-

rrak, eta egia berdaderoa esatea nahi baduzue, sekulan ez zait burutik pasa ere egin, zer euskara klase erabili behar nuen neure aisialdi bakoitzean. Eta joan deneko batean Itzaltzun izan nitzen, atzo Sestaon, eta bihar Zumaiara joan beharra naiz, beste gabe, *gai* batez, xalo-xalo nik taiuantzan dakidan hizkuntza bakar honetan aritzera.

Nik ez dakit zergatik sortzen dituzten gure *euskara sendalariok* honenbeste *gaitz* alfer-alferrik. Ez da ba izanen berek asmatutako *sen - dabelarrak* saldu nahi dituztelakotz? Ez asko fida, nere *sen-ide* maiteok, ez asko fida!

Irakaskuntza: *"Iparraldeko ikasleari euskara ikasten hasten den une beretik irakatsi behar zaio* jin *esaten. Nafarroako ikasleari, era berean,* deus *esaten, eta mendebaldeko ikasleari* jausi *esaten".* (173)

Orain dela dozenaren bat urte, Iruñeko Hizkuntz Eskolara joan nintzen, Ima Zestau leitzarrak gonbidaturik. Gaia: *hizkuntz ereduak irakaskuntzan.* Jauregi, Lizarralde,... Baziren maisu gehiago ere. Ni zirkoak behar zuen euskaldun hezigabe *berexi* bakarra. Betiko leloak atera ziren mahai gainera: herrian herriko euskara irakatsi behar zela eskoletan, ikasleak bularreko euskara goxoan tratatu,... Honelako zerbait esan niela uste dut:

"Haurrak, ikasleak, batere nortasunik baldin badu, behintzat, arrotz egin behar du eskola ofizial guzietako hizkera, eta bere eguneroko hizkera biziarekin deus ikustekorik ez duela sentitu. Hori da umea gizarte sano baten bizi delako aurreneko sintoma. Hori hala bada, lasai egon: beste *hizkera mailatze* guziak berez etorriko baitzaizkio umeari. Eta hala ez bada, *hizkuntzak* ez du deusen kulparik izanen, bizi dugun entropia moral honek baizik".

Maite Sarobe maistra aranaztarrari entzun nion beste behin Leitzan, Koldo Zuazo bere sendabelarrak saltzen ari zitzaigun batean, hain juxtu: komeni dela, esate bateko, Goizuetara joan baino lehen

"alde" ordez *"aieka"* esaten dutela jakitea, eta goizuetarrekin hizketan hastekoan halaxe, *"aieka"* erabiltzea.

Imajinatzen duzue, tokian tokiko *tokikotasun* guziak eta aldian aldiko *aldikotasun* guziak aldez aurretik xehero buruz ikasita ibiliko den *euskara egokidun* hori? Hori, inondik ere, euskararen *futuro perfektu* guziak aldez aurretik buruz dakizkien aztia izanen da, baina, inoizko euskaldun inposiblerik sunormalena ere bai, seguraski. Hortxe ikusi, maite nereak. Ni Estankonaren alde: *"etorkizuna beti da gezur barkaezina"*.

Gure prolema ez da euskara *egokia* edo *traketsa* erabiltzea. Gure prolema da, inork ez duela euskaldun izan nahi. Inor ez duela betetzen euskaldun huts izateak, euskaldun soil izateak, euskaldun izate *elemental* honek, euskaldun izate natural-natural honek; beti *apaingarri erantsi* bat bilatu nahi zaiola dirudi aspaldiko *gutiuste enkistatu* honi.

Eta ez naiz esaten ari, preziski, *Auspoa* edo halakoetako *natural izate* horrekin konformatu behar dugunik ere; ezin baitut ahaztu, haietan ere, apez baten eskua izan dela maiz *egokitzaile*. Egunen batean, ohartuko da euskalduna, giputx zentrismo frailunoak euskararen alor guzietara zabaldu duen zurikeria horretaz ere, gauza natural samar guziak apaindu *egokitu*) beharraz, ateraldi zakar edo kritika latz guziak estali beharraz, euskarak ukitzen duen guzia *basarrikeria* (sic) zuri batera ekarri beharraz,... Halaxe ohartu da esate bateko, Xipri Arbelbide, zer egiten zuen P. Laffite apezak *Herrian* Algeriako gerrako mutilen esanak omen zirenekin (Ikus *Hegats 34*, 123-39 orriak)

Jende askok uste baitu oraindik, mundu asper eta nazkagarri honetan, ba, euskara zera dela: *jostailu exotiko* bat, *ui ze pollita!,* beti modan dagoen *marimiss* bat, desira pasakor hutsa, *azal horizta, ezin betirakoa*. Eta prolema da, ni bezala, bere *eder-itsusi* guziekin hartan bizi denari, negar antzua iruditzen zaiola dena, negar zuria dena,

negar ijitotua dena, negar dirutua dena... Edo gogoz kontrako *algara exageratua*, eta *Ostiela* edo *Putz* bezalako *pito haundikeriak* sortuko dira aldian aldika, behiala *Igela* eta beste bezala, moralaren beste zokoko *alukeriak* nabarmendu nahiz. Esan dut lehen: zakarrena izanen bada ere, *apaingarri erantsi* bat behar beti. Badirudi ezin dela kabitu inola euskara bere larruan.

Beraz, segi dezadan Zuazoren *sendabelarrak* biltzen. *-Recuerde. Rappel.* Halaxe ageri omen dira Espainia eta Frantzia guziko kamioetan:

"Euskal Herrian ostera, batasun eza, anabasa galanta, arlotekeria eta zentzubakeria... Batean *Oroitu*, bestean *Gogoan izan*, hurrengoan *Gogora ezazu*, haruntzago *Gogoratu* ageri dira. *Oroitu egizu* xelebrea ere ikusita nago Bizkaiko herri baten: *oroitu* ekialdekoa eta *egizu* mendebaldekoa. Hori dok eta!" (182)

Jainkoak gorde gaitzala euskaldun sanook, Koldo bezain sentibera izatetik. Nik ez baitut deusen prolemarik sumatzen goiko anabasa eder horretan. Alderantziz baizik: euskaldun sen apurrik duen orok ederki ulertuko dituela guzi-guziak. Eta gainera, *oroitu egizu* hori, hagitz esaldi dotorea eta prosodikoa iruditzen zait. Nik segituan erosiko nuke horiek guziak baino oker haundiagorik inon ez ikusteko sendabelarra. Beste behin hala aditu nion Eduardori, *oroitu* arkaikotzat jotzen omen zuela Sarasolak. Bai, ni ere arkaikoa naiz, baina, XXI. mendean bizi-bizirik nagoen arkaikoa, *oroitu* errukabe gizajo hau bezalaxe.

- peskizan, primerako, bistadizo, konforme, derrigor eta gisako hitzak erabilgarriak omen *lagunarteko hizkeran* baina *"ez euskara jasoan, eta zer esanik ez, nazioko euskara jasoan"* (204). Goitisko jaso digute gure *marimiss* euskara, pollitkeria lehiaketa amaigabe honetan, badirudi, urtetik urtera takoiak mehetu eta altatu egin dizkiotela gaixoari. Baietz egunen batean erori eta muturrak hautsi! Maitale ona izaki, horren zain nauka ni.

Bai, *"sasikolokialtasuna"* eta *"sasikomunikabotasuna"* (bi perlok ere *euskara jasoan* darabilzki Koldok) uxatu egin behar ditugu, beraz, eta non gauden, norekin gauden, eta zertaz dihardugun kontuan izan (205). Bai, pezetak eurotara bihurtzeko eman ziguten txartel gisako bat erabili beharko dugu hemendik aurrera patrikeran, eta inorekin hizketan hasi aurretik, Zuazok eta enparauek irakatsitako formularioa kontsultatu, aurrez aurre daukagun hiztunari barkazio eskatuz: *"perdone, voy a conectar el elector, para registrar el* euskera egokia *que me corresponde en esta precisa situación, según marca la ley del nuevo estilo vasco hipercorrecto e hipersensible"*, eta gero hasi euskara egokian.

Izan ere, horixe izan baita aurtengo jardunaldion izenburua: *"Egokitasuna Euskararen Erabileran"*. Barkatu jaun-andreok, euskaldun izateagatik batere lotsarik eta meriturik ez duen baten pellokeriok aditzeko izan duzuen pazientziagatik. Eta ez bazaizue inportik, etxean bertako gertakari lotsaemangarri batekin bukatu nahi nuke:

Aitarengandik haina euskara bizi ez dut ikasi izanen, behar bada, inorengandik, baina, *euskara egokia* irakatsi nahia dela eta, oraindik eraman dudan lotsarik haundiena ere, aitarekin eraman dut.

Bizkaiko Orozkon ginen, osaba Joxemari hil zela eta, puntziora joanak. Elizkizunak bukatu eta lur santua eman ondoren, jendea hildakoaren senideei eta ahaidekoei doluminak ematen. Gure aitarekin aurrena egin zuena topo, Txamoraberriko Pilar izan zen, lehengusu propioa, eta aspaldian ikusi gabea:

- *Sentimentutan akonpañatzen dizut Loentxo.*

- *Hola ez da esaten: "Atsekaben laguntzen dizut"* .- gureak.

- *Eztakipa, guk beti ola esan izandu du(g)u ta...*

Hura lotsa nerea! Hitzik ez nuen atera. Baina niri begiratu zidan Pilarrek. Usteko baitzuen, *euskara egokitu* behar berriokin, nik pozoitua edukiko nuela aita ere. Jakin izan balu, errukabe gaizoak!...

Behar bada, aitagandik adina *euskara bizi* ez dut inorengandik ikasi izanen, eta *euskara egokia* erakusten behin hasiko gizona eta, horratx!... Nere biziko lotsa. Inork sumatu ote dit, ordea, nik nahiko nukeen bezala?...